



'Pakito' Pasaian omen dago

Pasaia badiaren sarreran duela bi aste azaldu zen izurdea gure 'Pakito' omen da. Ambar elkarteko biologoek bi astetan aztertu dute izurdea, animalien hegats profilari argazkiak egin dizkiote eta, diotenez, 'Pakito' da. Pasaian izurdea 'Rufino' izenez bataiatu zuten, baina orain 'Pakito' dela dirudi. 'Pakito' martxoaren 19an ikusi zuten azken aldiz Kontxan. Egun hartan izurde talde batekin elkartu eta haiekin joan omen zen.

Kontrol handiagoa harategietan

Udal Osasun Sailak harategiekiko kontrola zorrotz nahi du, eta arautegia errespetatzen ez dutenentzako isunak gogortu egingo ditu. Horretarako, Osasun Sailak ikuskatze kanpaina abiatuko du, uztailera. Gainera, orain arte, isunak 3.000 eurokoak baziren, aurrerantzean 6.000 eurorainokoak ere izango dira zerbaitetan.

'Behi eroen' krisialdiaren harira, Udalak arautegi berria jarri zuen martxan. Araudiak animalien arrisku zatiak -12 hilabetetik gorako animalien bizkarrezurra eta garunak- kontrolpean izatea zuen helburu. Donostian 239 harategi daude eta Udalak azken urteetan egindako azterketetan irregulartasunak atzeman ditu, baina arinak, gehienak. Dena dela, kasu larrietan besterik ez ditu isunak jarri; animalien bizkarrezurra ez kentzeagatik. Hemendik aurrera, ordea, hutsegite arinak ere zigortu egingo ditu.

Etxebizitza hizpide

Elkartzen-ek, eskubide sozialen aldeko herri mugimenduen plataformak, "Etxebizitza arazoa Donostian" izeneko jardunaldiak antolatu ditu hilaren 28an eta 29an, Egia kultur etxean.

Maiatzaren 28an, ostirala, Donostiako egoerari buruzko hitzaldia egingo dute, 19.00etan, eta bertan Donostialdeko okupen koordinadora, Altxa XXI eta Egia Bizirik ariko dira. Hilaren 29an, larunbata, 10.00etan, Felix Soto zinegotzi ohiak Donostiako Udalarren etxebizitza politikari buruz jardungo du. Arratsaldean, "Etxebizitzaren arazoaren aurrean, zer? Alternatibak badaude" izeneko mahai-ingurua egingo dute, 16.00etan; Elkartzenek, Duinak, Baga Boga plataformak eta etorkinen kolektiboko kide batek parte hartuko dute bertan.

euskararen donostia

p a t i n o n a l i u d

Donostia Udalaren Armarria

Haur zinema

- **Glub. Zabor bizidunak**
Zuzendaritza: Aitor Arregi eta Inigo Berasategi. Euskal Herria: 75 minutu. Maiatzaren 29an, 17.00etan. Egia kultur etxean. Sarrera: 1,80 €

Haur antzerkia

- **Pux eta Rux**
Pux eta Rux, Rux eta Pux, beti kux kux edozein moduk! Maiatzaren 29an, 18.00etan. Inbaurren ondo Berri kultur etxean.

Zientzia

- **Astronomia talerra. Eguzki sistema**
Maiatzaren 30ean, 17.15etan. Museorako sarrerarekin doan. Miramongo Zientziaren Kutxagunean.

Antzerkia

- **Iurrian zer dago?**
Xukan. Ekainaren 4tik 6ra arte, 20.30etan. Egia kultur etxean. Sarrera: 10 €
- **Dekameron**
Ados taldea. Ekainaren 3an eta 6an, 20.00etan. Antzoki Zaharrean. Sarrera: 12 € eta 9 €

euskaraz.net

LEHIAKETA

Hamar sarrera ditugu Ados Teatroaren "Dekameron" antzezlana euskaraz ikusteko. Emanaldia ekainaren 3an, osteguna, izango da Antzoki Zaharrean, 20.00etan. Sarrerak eskuratzeko, astelehenean 943 467181 telefono zenbakira deitu behar da 12:00etatik aurrera.

Joan den astelehorabazleak:
"Eterno" eso si que no obra

Bittor Aiala
Inaki Imaz
Aroia Aranaga
Inaki Telleria
Trebeka